

985/2021 EBAZPENA, abenduaren 22koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez onesten diren onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera, BOMSeko Basauriko eta Galdakaoko osasun mentaleko helduen zentroetako osasun mentaleko unitateburu bat hautatzeko egindako deialdian.

AURREKARIAK

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko (BOMS) zuzendari gerentearen urriaren 22ko 606/2020 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen, osasun mentaleko unitateburu lanpostu bat betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez, BOMSeko Basauriko eta Galdakaoko osasun mentaleko helduen zentroetan (EHAA, 329. zk., 2020ko abenduaren 18koa, eta BOE, 247. zk., 2020ko abenduaren 11koa).

Deialdian, 15 egun balioduneko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko, ebazpena zegokien aldikari ofizialetan azken aldiz argitaratuko zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta epe hori 2021eko otsailaren 13an amaitu zen.

BOMSeko zuzendari gerentearen urtarrilaren 22ko 40/2021 Ebazpenaren bidez, onetsi zen prozesuan onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, BOMSeko zuzendari gerenteak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emango du, adierazita zein izan diren baztertzeko arrazoiak. Ondoren, agindua emango du, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian argitaratzeko.

Aurrekoarekin batera, argitaratu beharrekoa da Balorazio Batzordearen izendapena.

Horrenbestez, pertsonaleko alorrean indarrean dagoen legediak ematen dizkidan eskumenez baliaturik, eta Osakidetza Estatu Sozialak arautzen dituen 15.1 e) artikuluari jarraikiz (255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa eta EHAA, 219. zk., azaroaren 14koa), lehiaketaren arauak betetzeko,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea, BOMSeko Basauriko eta Galdakaoko osasun mentaleko helduen zentroetako osasun mentaleko unitateburu lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan. (I. eranskina).

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onestea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren web-orrian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiok
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2021eko abenduaren 22an

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea
Carlos Pereira Rodríguez



I. ERANSKINA

BOMS-EKO BASAURIKO ETA GALDAKAOKO OSASUN MENTALEKO HELDUEN ZENTROETAKO OSASUN MENTALEKO UNITATEBURU LANPOSTUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Amaia Echevarria Alfonso and.

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoiak:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu du.
- 6- Beste batzuk.

II. ERANSKINA

BOMS-EKO BASAURIKO ETA GALDAKAOKO OSASUN MENTALEKO HELDUEN ZENTOETAKO OSASUN MENTALEKO UNITATEBURU LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburu

Titularra: José Ignacio Landaluze Lauzurica jn.

Ordezkoa: David Cantero González jn.

Lehen batzordekide

Titularra: Maribel Romo Soler and.

Bigarren batzordekide

Titularra: Carlos Francisco Caso Usero jn.

Ordezkoa: Fernando Antonio Santander Cartagena

Hirugarren batzordekide

Titularra: Izaskun Elortegi Kaiero and.

Ordezkoa: María Begoña Mendivil Eguiluz and.

Laugarren batzordekide

Titularra: Luis Pacheco Yañez jn.

Ordezkoa: Juan Medrano Albeniz jn.

Idazkari:

Titularra: María Urraza Bernaola and.

Ordezkoa: Miren Amaya de Allende Achalandabaso and.